**UHARTE ARAKILGO UDALA**
**AYUNTAMIENTO DE UHARTE ARAKIL**

UDALETXEKO PLAZA, 1.
CP 31840 UHARTE ARAKIL (NAVARRA)
TFNO: 948464036. FAX: 94846490
www.uhartearakil.com
info@uhartearakil.com

# DIRULAGUNTZA-DEIALDIA, KULTURA, KIROL ETA GIZARTE ENTITATEENTZAT. 2024. URTEA

Uharte Arakilgo Udalak, bere aurrekontuaren mugen barruan, dirulaguntzak emango dizkie Uharte Arakilgo kultura, kirol eta gizarte entitateei, honako oinarri hauen arabera:

OINARRIAK

1.- Xedea.

Deialdi honen xedea da Uharte Arakilgo kultura, kirol eta gizarte entitateei dirulaguntzak emateko araubidea ezartzea, honelako ekintza eta jarduerak sustatu eta babestearren: herrian herritarren parte hartzea bultzatzekoak, bizi kalitatea hobetzen dutenak eta kulturaren ezagupena nahiz garapena sustatzen dutenak, prestakuntzako, arte eta kulturako, gizarte eta kulturako edo/eta kiroleko jardunen bidez.

2. Dirulaguntza jasoko duten jarduerak.

a) Prestakuntzako jarduerak, helburu gisa populazioaren edozein sektoreren hezkuntza arautu gabekoa dutenak.
b) Arte eta kulturako jarduerak: antzerkia, musika, dantza, zinea, bideoa, literatura, arte plastikoak, folklorea eta antzekoak.
c) Gizarte eta kulturako jarduerak, helburu gisa herritarren sustapena dutenak.
d) Herriko arte eta kultura-ondarea babesteko jarduerak.
e) Kirol ikuskizun eta jarduerak.

3. Dirulaguntza jasoko duten jarduerek bete beharreko baldintzak.

# CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES A ENTIDADES CULTURALES, DEPORTIVAS Y SOCIALES,AÑO 2024

El Ayuntamiento de Uharte Arakil, dentro de los límites que determinan su presupuesto, concederá subvenciones a las entidades culturales, deportivas y sociales de Uharte Arakil conforme a las siguientes:

B A S E S

1.- Objeto.

La presente convocatoria tiene por objeto establecer el régimen de concesión de subvenciones a entidades culturales, deportivas y sociales de Uharte Arakil con la finalidad de promover y apoyar las acciones y actividades que propicien la participación de los ciudadanos en su localidad, mejoren la calidad de vida y promuevan el conocimiento y el desarrollo cultural a través de actuaciones formativa, artístico-culturales socioculturales y/o deportivas.

2. Actividades que se subvencionarán.

a) Las actividades de naturaleza formativa cuyo objetivo sea la educación no reglada de cualquier sector de población.
b) Las actividades de naturaleza artístico-cultural: teatro, música, danza, cine, vídeo, literatura, artes plásticas, folklore y otras análogas.
c) Las actividades de naturaleza sociocultural cuyo objetivo sea la promoción de los ciudadanos.
d) Las actividades en defensa del patrimonio artístico-cultural de la localidad.
e) Espectáculos y actividades deportivas.

3. Condiciones que deberán cumplir las

Uharte Arakilgo Udalaren zigilu elektronikoa (1, guztira 1)
Uharte Arakilgo Udala
Sinaduraren data: 01/05/2024
HASH: 371f96588ca140bba31ebe1fc794f659

Baliozkotze Kod.: 7EYRQWMZ3TFFNR75L7DHW5H42
Egiaztapena: https://uhartearakil.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 4

| | |
|---|---|
| | actividades objeto de subvención. |
| a) Herritar guztiek esku har dezaketenak izatea, hau da, bereizkeriarik ez egitea sexua, arraza, hizkuntza, ideologia, baldintza sozio-ekonomikoak eta abar direla eta. | a) Que estén abiertas a todos los ciudadanos, entendiendo como tal, la no discriminación por sexo, raza, lengua, ideología, condiciones socioeconómicas, etc. |
| b) Interesgarriak izatea hezkuntzaren, gizarte eta kulturaren eta/edo kirolaren arloetarako. | b) Que tengan un interés educativo, socio-cultural y/o deportivo. |
| c) Herritarren arteko harremana eta bizikidetza, hautapen librea eta garapen pertsonala bultzatzea. | c) Que fomenten la relación y la convivencia, la elección libre y el desarrollo personal de los ciudadanos. |
| d) Udalak dituen beste laguntza lerro batzuetan sarturik ez egotea. | d) Que no estén incluidas en otras líneas de ayuda del Ayuntamiento. |
| 4. Lanak aurkezteko tokia eta epea: | 4. Plazo y lugar de presentación. |
| Udalaren erregistroan aurkeztuko dira eskabideak, 2024ko maiatzaren 24a arte. | Las solicitudes se presentarán en el Registro del Ayuntamiento hasta el día 24 de mayo de 2024. |
| 5. Dokumentazioa. | 5. Documentación. |
| a) Eskabide-orria, eredu ofizialarekin bat. | a) Instancia modelo oficial (según modelo). |
| b) Urteko egitaraua eta aurrekontua (atxikitako ereduaren araberakoa). | b) Programa anual y presupuesto (según modelo que se adjunta) |
| 6. Balorazioa | 6. Valoración. |
| 6.1. Udalak ematen dituen dirulaguntzak izapidetzeko ardura duen organo kudeatzaileak aztertuko ditu aurkeztutako eskabideak, eta dirulaguntzak emateko proposamena igorriko dio alkatetzari, bera baita dirulaguntza horiek ebazteko eskumena duen organoa. | 6.1. El órgano gestor de tramitar las subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento estudiarán las solicitudes presentadas y elevará la correspondiente propuesta de concesión de subvenciones a Alcaldía, que es el órgano competente en materia de resolución de las mismas. |
| Organo kudeatzaileak 30 egun naturaleko epea izango du, proposamena aurkezteko, eskabideak egiteko epea bukatzen denetik kontatzen hasita. | El órgano gestor dispondrá de treinta días, desde la finalización del plazo de solicitudes, para elaborar su propuesta. |
| 6.2. Dirulaguntzak emateko batik bat honako hauek hartuko dira aintzat: | 6.2. Para la concesión de subvenciones se valorará fundamentalmente: |
| a) Jarduera euskaraz izatea. | a) Que en el desarrollo de la actividad el euskera sea el idioma empleado. |
| b) Jardueran parte hartzen duten uhartearren kopurua. | b) El número de participantes Uhartearras en la actividad. |
| c) Jarduerak zenbat egun irauten duen. | c) El número de días de actividad. |
| d) Jarduerak kulturaren, kirolaren eta/edo gizartearen arloan duen eragina eta oihartzuna. | d) La repercusión y el interés cultural, deportivo y/o social de la actividad desarrollada. |
| e) Monitoreek eta entitateko, erakundeko edo elkarteko arduradunek dinamizazio soziokulturalaren eta kirolaren arloan duten prestakuntza. | e) La formación en dinamización socio- |

Baliozkotze Kod.: 7EYRQWMZ3TFFNR75L7DHW5H42
Egiaztapena: https://uhartearakil.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 4

**UHARTE ARAKILGO UDALA**
**AYUNTAMIENTO DE UHARTE ARAKIL**

UDALETXEKO PLAZA, 1.
CP 31840 UHARTE ARAKIL (NAVARRA)
TFNO: 948464036. FAX: 94846490
www.uhartearakil.com
info@uhartearakil.com

f) Bertako kultura bultzatzea.

7. Dirulaguntzaren ebazpena eta ordainketa.

7.1. Alkatetzak ebatziko ditu eskabideak, alkatetza baita haiek ebazteko eskumena duen organoa. Horretarako, organo kudeatzailearen proposamena hartuko du aintzat.
7.2. Eskatzaileei deialdiaren ebazpenaren berri emango zaie, baita lagunduko diren jardueren berri ere.
7.3. Dirulaguntzek elkarte eskatzailearen jarduera edo programen kostuak sorrarazitako defizitaren zati bat estaltzeko helburua dutela ulertuko da.
7.4. Behin ebazpena egin ondoren ordainduko da dirulaguntza. Nolanahi ere, eskatzaileek abenduaren 20a baino lehen justifikatu beharko dituzte egindako jarduerek eragindako gastuak.
7.5. Dirulaguntzaren gastua frogatzeko, egindako eta diruz lagundutako jardueren gastuen jatorrizko ordainagirien fotokopiak aurkeztuko dira, eta haietan agertuko den zenbatekoa emandako dirulaguntzaren diru kopuru bera izango da Ordainagirietan honako hauek zehaztuko dira: entitate ordaintzailea, gastuaren data, kontzeptua, zenbatekoa, enpresaren izena ( NAN edo IFK) zigilua eta igorlearen sinadura.
7.6. Uharte Arakilgo Udalak jatorrizko ordainagiriak aurkeztea eskatu ahal izango du, egiaztapenak egiteko.
7.7. Dirulaguntzaren kopurua, helburu honekin Uharte Arakilgo Udaleko aurrekontuetan agertzen den zenbatekoaren baldintzapean geratuko da.

8. Betebeharrak.

a) Diruz lagundutako jarduera eta programen publizitatea euskaraz edota euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko da.
b) Diruz lagundutako jarduera eta programen publizitatean, Uharte Arakilgo Udalaren

cultural o deportiva por parte de los monitores y responsables de la entidad, organización o asociación sin ánimo de lucro.
f) Que potencien la cultura autóctona.

7. Resolución y pago de la subvención

7.1. La resolución de las solicitudes se llevará a cabo por Alcaldía, órgano competente en materia de resolución de las mismas, atendiendo la propuesta del órgano gestor.
7.2. Se comunicará a los solicitantes la resolución de la Convocatoria y las actividades objeto de la ayuda.
7.3. Las subvenciones se entenderá encaminadas a cubrir parte del déficit originado por el costo de las actividades o programas de la Asociación solicitante.
7.4. El pago de la subvención se realizará una vez hecha la resolución. No obstante, los solicitantes deberán justificar los gastos de las actividades desarrolladas antes del día 20 de diciembre de cada año.
7.5. El gasto de la subvención se justificará mediante fotocopia de facturas originales, con un importe igual al de la subvención concedida y se referirán a los gastos de las actividades realizadas y subvencionadas. En las facturas se detallará: la entidad pagadora, fecha del gasto, concepto, importe y nombre de la empresa (D.N.I. o N.I.F.), sello y firma del expedidor.
7.6. El Ayuntamiento de Uharte Arakil podrá exigir la presentación de facturas originales para su comprobación.
7.7. El importe de la subvención quedará condicionado en todo caso a la cuantía que figura con esta finalidad en los presupuestos del Ayuntamiento de Uharte Arakil.

8. Obligaciones.

a) Las actividades y programas subvencionados, deberán publicitarse en euskara o en bilingüe.
b) En la publicitación de las actividades y

Baliozkotze Kod.: 7EYRQWMZ3TFFNR75L7DHW5H42
Egiaztapena: https://uhartearakil.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 4

laguntza agertu beharko da.

c) Diruz lagundutako programetan edozein gorabehera gertatuz gero, haren berri ematea gertatzen den unean berean.

9. Betebeharrak ez betetzea.

Deialdi honetako oinarrietan ezarritakoa ez betetzeak, datuak faltsutzeak, edo, dirulaguntza zein xedetarako eman zen, horien funtsezko aldaketak, dirulaguntza galtzea ekarriko du, eta jaso diren zenbatekoak itzuli beharra ere bai. Halaber, xede berarekin edo bertsuarekin gero beste eskaririk egiten bada, ez da onartuko.

Deialdi honetan aurreikusi ez den guztiari dagokionez, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean xedatutakoari jarraituko zaio.

Uharte Arakilen elektronikoki sinatzen den egunean.

Alkatea, Jose Domingo Huarte Baleztena

programas subvencionados, deberá constar la colaboración del Ayuntamiento de Uharte Arakil.

c) Comunicar cualquier eventualidad en el desarrollo de los programas subvencionados en el momento que se produjera.

9. Incumplimientos.

El incumplimiento de lo establecido en las bases de esta convocatoria, el falseamiento de datos o la modificación sustancial de los fines en razón de los cuales se concedió la subvención, dará lugar a la pérdida de la misma, a la obligación de reintegrar las cantidades que hubiesen sido percibidas, y supondrá la inadmisión de las posteriores solicitudes de subvención con idéntica o similar finalidad.

En todo lo no previsto en esta convocatoria se estará a lo dispuesto en la Ordenanza General de Subvenciones.

En Uharte Arakil a fecha de firma electrónica
El Alcalde, Jose Domingo Huarte Baleztena

Baliozkotze Kod.: 7EYRQWMZ3TFFNR75L7DHW5H42
Egiaztapena: https://uhartearakil.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 4